

PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua:	03 - KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA
Atala:	0310 - Kultura Zuzendaritza Nagusia
Programa:	100 - Ondare Historiko Artistikoa eta Artxiboak
Funtzionala:	336 - Ondare historiko-artistikoaren babesa eta kudeaketa

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Iritsi zaigun ondarea ikertu eta iraunarazteko zaintzen badugu, gure komunitatearen identitatea indartzen ari gara, iragana komuna eta kolektiboa delako ideia azpimarratuz, hiritarren arteko loturak ahalbidetzen ari galarako. Hau dena, Gipuzkoako ondare historiko-artistiko, arkeologiko, etnografiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artxiboetan (Gipuzkoako Artxibo Orokorra eta Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa) gordetzen den ondare dokumentalaren kontserbazioa, ikerketa eta hedapenaren bidez egin nahi dugu.

Egoeraren diagnostikoa:

Foru aldundiek eskumen eskusiboak dituzte ondare historiko artistiko eta arkeologikoaren zaintza eta sustapenean Autonomia Estatutuan eta Lurralde Historikoen legean jasotzen den moduan.. Euskal Kultur Ondarearen 6/2019 Legeak kultur ondareari dagokion eskumenen banaketa ezartzen du, foru aldundiak direlarik lurralde bakoitzeko kultur interesa duten ondasunen kontserbazio eta sustapenean. Gainera, eskumen eskusiboa dute beren jabetzako artxibo historikoen kudeaketan. Baita ere aldundien eskumena da Lurralde Historikoaren ondare dokumentala zaharberritzea.

Nahiz eta azken urteotan aurrerapen handia izan den ondareak dituen baloreak gizartearen ulertzeko moduan eta inbertsio handiak egin diren ondare hori zaintzeko eta hedatzeko, oraindik zenbait hutsune daude, besteak beste, ondarearen inguruko sentsibilizazio falta edo ondarearen babesaren arloan garapen handiago falta, edo erakundeen arteko koordinazio estuago falta.

Behararen deskribapen xehatua:

Beharrezkoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak dituen ondare arloko eskumenei erantzuna ematea aurrekontu egoki baten bitartez.

Kulturak, Ondareak bereziki, foru zeharkako politikan egon behar du.

Ondarearen babesa legala handitu eta ondarearen jabeek laguntza gehiago ematea. Izan ere, ondareak balore sozial bat du, eta balore hori gizarte osoak disfrutatzen du.

Krisia baino lehenago inbertsio maila berreskuratzea, bereziki, ondare historiko-artistiko, arkeologiko, etnografiko eta dokumentala zaharberritzeko diru laguntzen kontu sailak.

Eusko Jaurlaritzarekin, udalekin, Lurraldeko eta beste Lurralde Historikoekin hainbat eragileekin lankidetzara sendotzea.

Jakituria hedatu beharra.

Ondarearen inguruko sentsibilizazioa landu.

Ondarearen inguruko espezializazioak bultzatu.

Ondarearen inguruko ekintzak garapen ekonomiko eta sozial klabeak ikustea.

Nori zuzendua:

Sektore eragile ezberdinak (profesionalak, elkarteak, irabazi asmorik gabeko erakundeak), udalak, Aldundiko departamentuak eta herritarrak.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Giza eta ekonomia baliabideak, laguntza teknikoak, baliabide teknologikoak, aplikazio informatikoak.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

- Ondare historiko-artistiko, etnografiko, arkeologiko eta dokumentalaren zaintza, zaharberritze, ikerketa eta hedapenari buruzko eskumen eskusiboak egikaritu:

- Euskal Kultur Ondarearen Legean jasotako baimenak tramitatu, babestutako ondareari buruzko interbentzioen jarraipena eta ikuspena egin.

- Gipuzkoako ondare historiko-artistiko, arkeologiko eta dokumentala zaindu eta hedatu.
- Entitate publiko zein pribatuei ondarearen zaintzari buruzko aholkularitza eman.
- Birgaitze lanetarako, zaharberritzeko eta ikerketarako diru-laguntzak eman.
- Ondarearen hedapenerako jardunaldiak, mintegiak, bisita gidatuak antolatu eta argitalpenak sustatu.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gipuzkoako Artxibo Orokorraren eta Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoaren dokumentuak antolatu, deskribatu, digitalizatu, zaharberritu eta zabaltu, on-line bereziki.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gipuzkoako Artxibo Orokorraren eta Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoaren erabiltzaileen kontsultei erantzun eta ekintzak antolatu (argitalpenak, erakusketak, bisita gidatuak...) gure artxiboak eta historia ezagutarazteko.
- Gipuzkoarentzat interes historikoa duen dokumentazioaren kontzerbazioa bermatzea zenbait bidez (transferentziak, dohaintzak, komodoak eta erosketak).

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ondare historiko-artistikoa, etnografikoa, arkeologikoa eta dokumentalaren kontzerbazioa, ikerkuntza eta hedapena hobetu.

Baimenak eman esku-hartze eta ikerketa arkeologikoak egiteko.

Entitate publiko zein pribatuei ondarearen zaintzari buruzko aholkularitza.

Birgaitze lanetarako, zaharberritzeko eta ikerketarako diru-laguntzak eman.

Ondarearen hedapenerako jardunaldiak, mintegiak, bisita gidatuak, argitalpenak, kurtsoak, on line katalogoak...

Foru Aldundiako artxibo historikoan dokumentuak jaso, antolatu, digitalizatu eta zaharberritu.

Artxibo historikoen erabiltzaileei dokumentuen kontsultak eta dokumentuen kopiak. Horretaz gain, gai historikoei buruzko aholkularitza. Beste eragile batzuei dokumentak utzi, maileguaren bidez, erakusterako; instalazioak uztea ekintza...

Interes historiko duen dokumentazioaren kontzerbazioa eta hedapena bermatu, artxiboko instalazioak pribatuei eta beste erakunde batzuei eskainiz.

Programaren arau esparrua:

UNESCO eta ICOMOS bezalako nazioarteko erakundeen Karta, Konbentzio eta Iradokizunak

7/1990 Euskal Kultur Ondarea; 234/1996 urriaren 8ko Dekretua, balizko eremu arkeologikoetarako; 306/1998 Dekretua, azaroaren 10ekoa, kalifikatutako eta zerrendatutako kultura ondasunen aurri egoeraren deklarazioari buruzkoa; 341/1999 DEKRETUA, 1999ko urriaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan aurkitutako interes arkeologikoa edo paleontologikoa duten ondasunak garraiatu, entregatu eta gordailuan uzteko baldintzei buruzkoa. 214/1996 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, hiritartu eta eraikitako ondarea birgaitzeko jarduera babestuei buruzkoa dena; Ingurumen Eragineko Ebaluazioari buruzko araudia; Ondare historiko-artistikoa eta ondare arkeologikoaren ikerketa eta indusketarako diru-laguntzaen dekretu arautzaileak; Dokumentu ondareari dagokionean, nahiz eta aldundiek eskumen eskusiboak eduki bere jabetzako artxiboetan, dokumentu ondarearekin lan egiten denez, aplikagarria litzateke betiere eskumenen banaketa kontuan harturik, 7/90 Euskal Kultur Ondareari buruzkoa Legea. Baita ere 232/2000 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituenak. Datuen irisgarritasuna eta babesaren araudia.

Gainera, alderdi teknikoari dagokionean, dokumentuen deskribapenerako eta gestiorako aplikagarria den araudia: ISAD(G) eta ISAAR, Tesauoen ISO arauak

DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

Urteko helburua:

Gipuzkoako Foru Aldundiko artxibo historikoek kudeatzen duten ondare dokumentalaren artapena, ikerketa eta zabalkuntza bermatzea, eta Gipuzkoako beste erakunde batzuekin kolaboratzea ondare dokumentala artatu eta zabaltu dadin, bereziki Gipuzkoako artxiboen webgunearen bitartez.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Gipuzkoako Foru Aldundiko artxibo historikoen atarian kontsultagai dauden agiri eta irudien erregistro kopurua	Kopurua	=	1.927.000,00	2.114.000,00	2.150.000,00	2.350.000,00

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen duen ondare dokumentalaren kontserbazioa, ikerketa eta hedapena bermatu Gipuzkoako Artxibo Orokorraren eta Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoaren bidez, gure historia ezagutzeko. Halaber, Gipuzkoarako interesa duen ondare dokumentala jaso eta hedatu

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	2.507.971,08	4.000,00		2020/01/01	2021/12/31	
1.1 Ekintza Bi artxibo kudeatu, kontserbazio, ikerketa eta hedapen helburuak bete ditzaten bermatzeko: giza baliabide eta baliabide ekonomikoak eraikinen eta zerbitzuen funtzionamendurako eta mantentzerako	1.758.971,08			2020/01/01	2020/12/31	
1.2 Ekintza Gipuzkoarako interes historikoa duen dokumentazioa bildu transferentzien, dohaintzen, komodatoen eta erosketen bitartez	80.000,00			2020/01/01	2020/12/31	
1.3 Ekintza Herritarrei oro har eta ikertzailei bereziki zerbitzu eta edukiak eskaini: erabiltzailei arreta; dokumentuen kontsulta eta kopiak, bai artxiboetan bertan, bai interneten bidez; argitalpenak, ikerketa historikoak egiteko beka,	288.750,00	4.000,00		2020/01/01	2021/12/31	
1.4 Ekintza Bi artxibo hauetan gordetzen dituzten dokumentuak antolatu, deskribatu, digitalizatu, zaindu eta zaharberritu	283.750,00			2020/01/01	2020/12/31	
1.5 Ekintza Bi artxiboen eraikinak eta instalazioak hobetu	96.500,00			2020/11/02	2020/12/31	

2. Jarduketa ildoak:

Gipuzkoako ondare dokumentalaren kontserbazioa eta hedapena sustatu, foru aldundiaren eskumenaren arabera

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	443.000,00			2020/01/01	2021/12/31	
2.1 Ekintza Erreferentziako erakundeir diru laguntzak eman: Eresbil Fundazioa. Musikaren Euskal Artxiboa, Lazkaoko Beneditarren Fundazioa.	407.000,00			2020/01/01	2021/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Erakunde horiek Departamentuarekin ondare dokumentalaren kontserbazio eta hedapen helburuak partekatzen dituzte.						
2.2 Ekintza Gipuzkoako Lurralde Historikoko ondare dokumentala publikoa nahiz pribatua zaharberritzeko diru laguntzak eman	36.000,00			2020/02/01	2020/12/31	
Urteko helburua: Gipuzkoako Lurralde Historikoko ondare historiko-artistikoaren, arkeologikoaren, etnografiko higiezinaren eta ondare ukiezinaren artapena, ikerketa eta zabalkuntza bermatzea.						
Adierazlea	Neurri- unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Zenbat eskaera espediente tramitatu dituen Zerbitzuak Euskal Herriko Kultur Ondarearen Legeak babestutako ondare arkitektoniko eta arkeologikoan esku-hartzeko	Kopurua	=	233,00	318,00	340,00	345,00
Ondare historiko-artistikoa berreskuratu, zaharberritu eta balioan jartzeko emandako laguntza kopurua	Kopurua	=	86,00	60,00	63,00	65,00
Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak						
1. Jarduketa ildoak: Pendiente						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	159.406,25			2020/01/01	2020/12/31	
1.1 Ekintza Babestutako ondarean egindako esku hartzen ikuskapena eta jarraipena, arautegiak bete ditzaten bermatzeko, edo bestela zigor erregimena martxan jartzea	129.406,25			2020/01/01	2020/12/31	
1.2 Ekintza Euskal Kultur Ondareari buruzko Legeak babestutako eraikinetan eta indusketa arkeologikoetan, esku hartze egiteko baimenak (foru aginduak) eman. Ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren txostenak prestatu.	30.000,00			2020/01/01	2020/12/31	

2. Jarduketa ildoak:

Euskal Kultur Ondareari buruzko Legeak babestuko ondarea eta Gipuzkoarako interes kultural duen ondarearen kontserbazioa, kontsolidazioa eta hedapena sustatu

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	3.877.500,00	1.276.667,00		2020/01/01	2021/12/31	
2.1 Ekintza Titulartasun publikoa zein pribatua duen ondare historiko-artistiko eta etnografikoa zaharberritzeko eta obrek eragindako indusketa arkeologikoak egiteko diru laguntzak eman	570.000,00	25.000,00		2020/02/01	2021/12/31	
2.2 Ekintza Erreferentziako erakunde eta beste elkarte batzuei diru laguntzak eman: Aranzadi Zientzia Elkartea, Arkeolan Fundazioa, Barandiaran Fundazioa... Erakunde horiek Departamentuarekin ondarearen kontserbazio eta hedapen helburuak partekatzen dituzte	752.500,00	6.667,00		2020/01/01	2021/12/31	
2.3 Ekintza Gipuzkoako ondarean, ofizioz egindako ikerketak eta esku hartzeak	2.555.000,00	1.245.000,00		2020/01/01	2021/12/31	

3. Jarduketa ildoak:

Ondareari buruzko ezagutzak hobetu. Ondarearen kontserbazioarekiko sentsibilizazioa handitu

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	468.593,75			2020/01/01	2020/12/31	
3.1 Ekintza Ondareari buruzko ikerketak egin: indusketak eta ikerketa arkeologikoak; ondareari buruz bestelako ikerketak (organoak, erretaulak...) ondarearen datu base handitu; Ondare Saria.	309.375,00			2020/01/01	2020/12/31	
3.2 Ekintza Hedapen ekintzak. Pasaiaiko Itsas Festibal, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Iankidetza; Europako Ondarearen Jardunaldien eta Orain Ondarean jaurdunaldien antolaketa...	159.218,75			2020/01/01	2020/12/31	

4. Jarduketa ildoak:

Ekintzen ildoak aurrera eramateko, beharrezko kudeaketa : pertsonala, dietak, ordenagailuak

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	461.821,69			2020/01/01	2020/12/31	
4.1 Ekintza Ondare historiko-artistikorekiko ekintzen ildoak kudeatzea, langile propioaren bidez (langileen gastuak; dietak, ordenagailuak...)	461.821,69			2020/01/01	2020/12/31	
5. Jarduketa ildoak: Departamentuak duen ondare historiko-artistiskoaren kontserbazioa eta balioan jarri						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	105.456,00			2020/01/01	2020/12/31	
5.1 Ekintza Ondare balioa duten eraikinetan zaharberritze eta mantentze lanak egin	105.456,00			2020/01/01	2020/12/31	
Urteko helburua: Eredu kultural jasangarriago, parte hartzaileago eta eraldatzaileago bat lortzeko aurrera egitea						
Adierazlea	Neurri- unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
San Juan ontziaren erakitzeko proiektua ezagutzera Ondartxo ontziolara joaten diren bisitariak. Proiektua Albaola Elkarteak garatzen ari da.	Kopurua	>=	53.055,00	60.000,00	63.000,00	65.000,00
Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak						
1. Jarduketa ildoak: Laguntza ematea Pasaiaiko Ondartxoko Albaola ontziolari eta Pasaiaiko esparruan Gipuzkoako Foru Aldundiko itsas ondarea eta memoria balioan jartzea.						
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	276.506,23			2020/01/01	2020/12/31	
1.1 Ekintza Albaola elkarteak Ondartxon sustatuko ontziola tradizionalaren proiektua bultzatu, Albaola Elkarteari GFAk Ondatxon dituen Albaola bi emankida lagatuz eta diru laguntza izendun bat emanez, Albaolaren ekintzei laguntza	263.374,50			2020/12/01	2020/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
emateko.						
1.2 Ekintza						
Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak itsas ondarea zaintzeko eta hedatzeko sinatutako hitzarmena bultzatu	13.131,73			2020/01/01	2020/12/31	

GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

Programaren genero garrantzia: Txikia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Gizarte gipuzkoarrean, kulturaren praktikaren alorreko emakume eragileen presentzia eta ikusgarritasuna haunditu eta indartzea

Kuantifikazioa: 2.887,50 (% 0,04)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
Or 2. Berdintasunerako koordinazioa eta lankidetzat indartu.	(% 100,00)	Or 2.1. Berdintasunerako departamentuen arteko egituren indartzea, beti ere berdintasunerako planifikazioa eta jarduera koordinatu, hausnartu eta erabakiak hartzeko.	Berdintasunerako Batzorde Politikoaren, Azpibatzorde Politikoaren, Departamentu Arteko Talde teknikoaren eta Departamentuko barne unitateen bilera kopurua. Berdintasunerako bere politikak egiteko laguntza jasotzen duten Gipuzkoako udal kopurua. Berdintasunerako Organoak parte hartu duen lurralde arteko erakundeen bilera eta topaketa kopurua.

HIZKUNTZA BEREINTASUNEN PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Lurraldeko kulturen bitarteko jardun desoreka disgresioa eta euskarazko kultur baliabideen gabeziari aurre egiteko.

Kuantifikazioa: 183.784,62 (% 2,21)

Kategoria	Kategoria %	Nola
1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	(% 12,14)	Deialdi eta ekitaldietan hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da.
2.1. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	(% 5,95)	2.1.1. Idatzizko harremanak
		2.1.2. Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak
		Hizkuntzen erabilera orekatua bultzatuko da eta edozein kasutan hizkuntza eskubideak bermatuko dira. Dokumentu guztiak elebitan egongo dira.
		Berariaz harremana euskaraz izan nahi duten udaletara zuzendutako ingurumen ebaluazio txostenak euskaraz bideratzeaz gain, gero eta txosten gehiago euskaraz sortzeko hurratsak emango dira.
		Berariaz harremana euskaraz izan nahi duten herritar, enpresa eta erakundeei zuzendutako txostenak euskaraz sortzeko urratsak emango dira.
		memoriak euskaraz idatzita
		Diru laguntza lerroen oinarrietan hizkuntz irizpideak sartuko dira
2.2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan	(% 11,90)	2.2.2. Telefonoz, online eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak
		Hitzarmena arautzen duten oinarrietan hizkuntz irizpideak txertatuko dira eta haien jarraipena egingo da.
3.1. Lanari lotutako hizkuntza-paisaia	(% 13,10)	3.1.1. Lanari lotutako hizkuntza-paisaia
		Lan prozesu guztietan euskara erabiltzea
3.2. Idatzizko komunikazio bertikala eta horizontala	(% 3,57)	Argitaratutako dokumentu guztiak elebitan egongo dira. Gero eta dokumentu gehiago euskaraz sortzeko pausoak emango dira
5.2. Erakunde pribatuak: bezeroak (pertsona juridikoak), finantza-entitateak, produktu-eta zerbitzu- hornitzaileak, etab.	(% 4,76)	Azterlanak eta auditoretzak burutuko dituzten enpresen kontratazioan hizkuntz irizpideak erabiliko dira. Txosten guztiak elebitan aurkeztuko dituzte kontratatutako enpresek.
6.2. BEZEROAK edo HERRITARRAK eta PRODUKTUA edo ZERBITZUA: Hizkuntzen kudeaketa bezeroekiko eta herritarrekiko harremanen kudeaketan eta produktuen edo zerbitzuen garapenaren kudeaketan integratzea	(% 48,57)	6.2.1. Bezeroak edo herritarrak, zerbitzuak edo produktuak eta hornitzaileen kudeaketa

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2019	2020	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2021	2022	2023	2024 eta hurrengoak/ 2024 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	1.363.794,00	1.474.655,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	1.497.600,00	1.447.600,00					
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	746.500,00	1.079.000,00	10.667,00				10.667,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	3.607.894,00	4.001.255,00	10.667,00				10.667,00
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	652.000,00	3.080.000,00	1.245.000,00				1.245.000,00
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	1.249.000,00	1.219.000,00	25.000,00				25.000,00
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	1.901.000,00	4.299.000,00	1.270.000,00				1.270.000,00
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	5.508.894,00	8.300.255,00	1.280.667,00				1.280.667,00

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL		1.474.655,00				1.474.655,00
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		1.447.600,00				1.447.600,00
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES		1.079.000,00		10.667,00		1.089.667,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes		4.001.255,00		10.667,00		4.011.922,00
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES		3.080.000,00		1.245.000,00		4.325.000,00
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL		1.219.000,00		25.000,00		1.244.000,00
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital		4.299.000,00		1.270.000,00		5.569.000,00
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total		8.300.255,00		1.280.667,00		9.580.922,00

Sarreraren kapituluak / Capítulos de ingresos	2019	2020	Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS			
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS			
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS	1.000,00	1.000,00	
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES			
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES			
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	1.000,00	1.000,00	
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES			
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL			
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital			
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS			
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS			
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras			
Guztira / Total	1.000,00	1.000,00	